

IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA

Hiri Hondakinen Kudeaketa Zerbitzuaren 2014ko Finantziazioa arautzen duen Ordenantzaren aldaketa hasiera batez onestea.

Iruñerriko Mankomunitatearen Batzar Nagusiak, 2013eko urriaren 29n egindako bilkuran, Hiri Hondakinen Kudeaketa Zerbitzuaren 2014ko Finantziazioa arautzen duen Ordenantzaren aldaketa onetsi zuen hasiera batez.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, onestutako aldaketak jendurrean egon beharko du hogeita hamar lanegunez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, interesatutako pertsonak espedienteaz aztertu ahal izan dezaten eta erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak aurkezteko aukera izan dezaten.

Jendurrean egoteko aldia iraganik alegaziorik aurkezten ez bada, ordenantza behin betiko onetsita geldituko da, eta bere testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Iruña, 2013eko urriaren 30an. Mankomunitateburua, José Muñoz Arias.